

INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMA DIREN HAUR, NERABE
ETA EMAKUMEEI
ARRETA EMATEKO
IKASTETXEENTZAKO
JARRAIBIDEAK



INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMA DIREN HAUR,
NERABE ETA EMAKUMEEI
ARRETA EMATEKO
IKASTETXEENTZAKO
JARRAIBIDEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:	1.a, 2022ko ekaina
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza Saila
Internet:	www.euskadi.eus/publicaciones
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian k, 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ
Diseinua eta maketazioa:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian k, 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ
Estalkiaren irudia:	Pixabay

SARRERA

Zeri erantzuten diote jarraibide hauek

4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoak, honako hau xedatzen du 62. artikuluan:

- 1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez, gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal administrazio publikoekin erakunde arteko lankidetzak-akordioak eguneratzea sustatuko du; izan ere, horrela ahalbidetuko da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak goiz detektatzea, horrelako kasuetan koordinatua eta eraginkor jardutea, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatekoa bermatzea. Gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzak-bideak sustatu behar dira.
- 2.- Lankidetzak-akordio horietan, jarduketa-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, Erkidego osorako homogeneoak, horrelako kasuetan diharduten profesionalentzat (...).

Horri erantzuna emateko, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearen arteko II. Akordioa* dago eta Hezkuntza Sailak parte hartzen du.

Akordio horretan jasotzen da:

Erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute beren jarduera Akordio honetan txertatzen den jarduera-protokoloari egokitzeko, etxeko tratu txarren eta/edo emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren ondoriozko arau-hauste penalak izan daitezkeen kasuetan.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, *EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)*¹ planaren bidez, euskal hezkuntza-sistemari eta, zehatzago, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapei hezkidetzak-eskolan urratsak ematen jarraitzeko aukera eskaintzen die.

Plan horretan egin beharreko ekintza guztiak planifikatuta daude eta horien artean hauxe da bat:

"40. Etxean tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko indarrean dagoen Erakunde Arteko Hitzarmena betetzeko ikastetxeentzako hautemateko eta jarduteko jarraibideak lantzea eta zabaltzea."

¹EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023), 2019. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila.

Bestetik, Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa² dokumentuaren 7. atalari (Heziketaren arloko jarduna) dagozkio jarraibide hauek.

Aurreko hori guztia oinarritzat hartuz egin dira jarraibide hauek.

Marko juridikoa eta araudia

Hezkuntza da emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikei dagokienez gehien araupetutako arloetako bat. Hainbat araudi, gomendio, plan eta abarrek bultzatzen dute hezkuntza-sistema aktiboki lan egitera hezkidetzazko eskola-eredu bat lortzeko.

Nazioartean Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda dugu. Izaera unibertsala duen plana da, munduko herrialde guztiak eraginpean hartzen dituena. 15 urteko epean (2015-2030) garatu beharreko Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu biltzen ditu. 2030 Agendak aurrerakada nabarmena ekartzen du generoaren ikuspegitik. Izan ere, alde batetik, helburu espezifiko gisa jasotzen du "genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea", eta, bestetik, estrategikotzat jotzen ditu genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.

Horretaz gain, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (2011ko maiatzaren 11, Istanbul) 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak. Hitzarmena emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Halaber, 4/2005 Legeak jasotzen du 29.2 artikuluan


Hezkuntza Administrazioak oinarritzat ezarriko du hezkuntza maila guztietan indarkeriazko jokoerak prebenitzea, adingabeekiko sexu-abusuak barne, eta eguneroko bizitzarako irakasgai edo eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza maila guztietan. Eduki eta aldi horietan gai hauekin lotutako alderdi eta edukiak sartuko dira: etxeko eremua eta pertsonen zaintza, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutza eta harreman afektibo-sexual osasungarri eta positiboak sustatzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen gorputza erakartzeko elementu edo aberastasun-iturri gisa erabiltzea zalantzan jartzea, jarrera matxisten identifikazioa eta prebentzioa, agerikoenak ez direnak barne, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta dibertsitatearen errespetuan oinarritutako bizikidetzazko ereduak ikastea.

Hona hemen aipatutakoa jasotzen duten lege eta dekretu desberdinak:

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

²Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa, 2009. Emakunde

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa*. Euskal Autonomia Erkidegoa (2009).
- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana* (2018).
- *Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna* (2017).
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoa.



JARRAIBIDE HAUEK APLIKAZIO EREMUA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka, emakume izateagatik, baliatzen duten indarkeria da, eta hala baliatzen da genero-diskriminazioen ondorioz eta gizarte-eredu ez-pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun-egoeran baitaude haiekiko³.

Jarraibide hauek emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen ditu emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten den barne, edo neurritz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan baita haurren aurka egindakoa ere, amari min egiteko. Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta horien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoak, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada. Hori guztia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legeak eta EAeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak egiten duten definizioarekin bat, indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenari jarraikiz (emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena edo Istanbulko Hitzarmena)⁴.

Egiturazko indarkeria da emakumeen aurkako indarkeria hori, hau da, gizarte-egitura matxistaren barruan antolatu eta ezarria da, eta, horrenbestez, indarkeria horrek gizartearekin du zerikusia, nahiz eta pertsona jakin batzuek harreman pribatuetan erabiltzen duten indarkeria izan.

Gainera, kontuan izan behar da 1/2017 Legeak, martxoaren 8koak, Genero indarkeriaren aurkako prebentzioari eta emakumeen babes integralari buruzko apirilaren 8ko 16/2003 Legea aldatzen duenak, 2.2 artikuluan, genero-indarkeriaren eremuan sartzen ditu haurrak eta nerabeak, eta aitortzen du: *Haurrak indarkeria matxisten biktima dira, familia barruko indarkeriaren lekuko gisa*.


Era berean, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legearen xedea da haurrek eta nerabeek edozein

³EAE-ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana. Emakunde.

⁴II Hezkidetzeta-plana, EAeko hezkuntza sistamarako berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023.

indarkeria-motaren aurrean beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarritzko eskubideak bermatzea, beren nortasunaren garapen askea ziurtatuz eta babes integraleko neurriak ezarriz, sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesak eta eremu guztietan garatzen diren kalteen ordaina barne.

Dokumentu honen **VI. ERANSKINEAN** emakumeen aurkako indarkeria motak deskribatzen dira:⁵




Indarkeria ERAGITEN DUEN AGENTEAREN arabera, eskolan honako indarkeria matxista egoerak hauteman daitezke:

- Ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxe bereko mutil ikasle baten eskutik.
- Ikasle batek indarkeria matxista jasaten duela, ikastetxeko langileren⁶ baten eskutik.

⁵ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak EAE, 2019. Emakunde

⁶Kolektibo horren barruan sartzen dira bai irakasleak eta ikastetxeko langileak, bai adingabeekin harremanetan egon ohi diren ikastetxeko langileak (monitoreak, jangelako begiraleak edo zaintzaileak, entrenatzaileak etab.), dela eskola-ordutegiaren barruan, dela kanpoan, betiere beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean edo beren lanbidea eskola-barrutian edo instalazioen barruan betetzen ari direnean.

- Ikasle batek indarkeria matxista jasaten duela, senideren baten edo ikastetxeko langilea ez den beste pertsona baten eskutik.
- Ikastetxeko emakume langile batek edo ikasle baten amak etxean gertatzen den indarkeria matxista jasotzen duela⁷.




JARDUTEKO PRINTZPIO OROKORRAK

Jarraibide hauek egiterakoan hiru ardatz hartu dira kontuan: giza eskubideak, genero berdintasuna, eta haur eta nerabeen babesa.

Jarraibide hauetan jasotako jarraibideak betetzeko orduan, inplikaturako profesionalak eta erakundeak honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Adingabeen interesen defentsa. Jarraibideak aplikatzeko garaian, adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Beti kontuan hartu beharko da umeen eta nerabeen interes gorena.
- Konfidentzialtasuna. Konfidentzialtasun printzipioaren babespean egongo dira emakumeen aurkako indarkeriari buruz egiten diren kontsulta edo kexa guztiak, tartean sartutako pertsonak zein jarraibide hauek aplikatzerakoan era batera zein bestera parte hartzen duten langileak. Indarkeriak pairatu dituzten pertsonen anonimotasuna gordeko da.
- Babesa eta segurtasuna. Ikastetxeek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte indarkeria-egoeraren berri ematen duten haur eta nerabeen babesa eta segurtasuna bermatzeko.
- Jabekuntza eta normalizazioa. Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko garaian, indarkeriaren biktima diren emakumeek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahalegina egin beharko da.
- Eraginkortasuna eta arintasuna. Dokumentu honek biltzen dituen jarraibideak aplikatzeko, berratu beharko da antolaketa eraginkorra eta arina, horrelako egoeretan ohikoa izaten den urgentiak hala eskatuta, berehalakotasunez jokatzeko.
- Prebentzioa. Jasotako jarraibide multzoa aplikatuko da biktimen aurkako indarkeria egoerarik errepikatu ez dadin. Horretarako gainera, ikastetxeetan hezkidetzak sustatuko da prebentzio helburuarekin.
- Laguntza osoa eta pertsonalizatua. Jarraibide hauetan aipaturako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien menpekoak diren pertsonari ematen zaien arretak indarkeria egoera bakoitzetik sortzen diren behar ezberdinak hartuko ditu barnean eta, horretarako, kasu bakoitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak jarriko zaizkie eskura.
- Ikasleak informatuak egongo dira indarkeria matxistaren aurrean



jarduteko jarraibideen inguruan⁷. Ikastetxe guztiek emango diete haur eta nerabeei, hezkuntza-etapa bakoitzari egokitutako formatu eta hizkuntzan, administrazio publikoek araututako eta ikastetxean aplikatutako indarkeria-egoeren komunikazio-prozedurei buruzko informazio guztia, bai eta eremu horretako arduradunei buruzkoa ere. Era berean, hasiera-hasieratik emango dute baliabide elektronikoei buruzko informazioa, hala nola haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono-lineei buruzkoa ere.

- Biktima diren haur eta nerabeen bigarren mailako biktimizazioa prebenitzea. Ikastetxeetako profesionalak jakin behar dute zer egin behar den indarkeria matxista kasu baten aurrean. Ezinbesteko gutxieneko esku-hartzea egitea, bigarren mailako biktimizazioa saihestuz; hau da, haur edo nerabeari sufrimendu erantsia eragitea, profesionalak eta erakundeek egiten ditugun jardueren ondorioz.
- Hezkuntza-tratamendua eta kalteak konpontzeko lanak. Hezkuntza-arloan neurriak eta bitartekoak jarri behar dira indarkeria-ekintzak ekiditeko eta prebentzio-faktoreak eta faktore positiboak sustatzeko; halaber, hezkuntza-neurriak proposatu eta landu behar dira kaltetutako harremanak birsortzeko eta biktimei laguntza osoa eman eta haiei eragindako kalteak konpontzeko.
- Koordinazioa. Parte hartzen duten erakundeen lan koordinatua, eta lankidetzak eta elkarlana egon daitezela zaintzea, babesgabetasuna, tratatu txarrak eta/edo sexu-abusuak eta sexu-jazarpena antzemateko eta egoera horiei aurre egiteko.
- Sentsibilizazioa eta prestakuntza. Esku-hartze egokia bermatzeko, beharrezkoa da prozeduran parte hartuko duten pertsonak berdintasunean sentsibilizatuta egotea eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gutxieneko prestakuntza espezifikoa izatea.
- Bitartekaritza ez da egongo. Genero-indarkeria egoera guztietan bitartekaritza debekatuta dago gatazkak konpontzeko ordezkari neurri gisa, 1/2004 Legearen 44.5 artikulua jasotzen duen bezala.

OHARRA:

Ikaslearekin jarduteko orduan kontuan hartu **VII. ERANSKINEAN** proposatzen diren gomendioak: zer egin eta zer ez egin.

⁷8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoa

INDARKERIA MATXISTA ERAGITEN DUEN AGENTEAREN ARABERA JARDUTEKO ETA DETEKTATZEKO JARRAIBIDEAK

Indarkeria matxista eragin duen agentearen aldagaiak berebiziko garrantzia dauka eta agentearen araberako berezitasunak kontuan hartu beharko dira esku-hartzean.

A. HEZKUNTZA KOMUNITATEKO NORBAITEK JAKITEA EDO SUSMOA IZATEA IKASLE BAT INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DELA, IKASTETXE BEREKO IKASLE MUTIL BATEN ESKUTIK

Kasu horretan *EAEko Unibertsitateaz kanpoko Ikastetxeetan eskola-jazarpen egoeretan jarduteko protokoloan* ezarritakoa aplikatuko da. Bereziki, zentroko zuzendaritzak edo BAT Taldeak edo horretarako berariaz sortutako taldeak honako urratsak jarraituko dituzte:

1. Informazioa jasotzea:

a) Ebidentziak baldin badaude:⁸

- Zuzendaritzak, kontakizuna jaso duen pertsonarekin batera, jasotako informazioa-rekin jazarpen-protokoloaren **O ERANSKINA** beteko du, jazarpen-protokoloa martxan jarritz. Eranskina bete ondoren, erreferentziako ikuskariari eta Berritzeguneko zuzendariari bidaliko zaie.
- «Epaitegira igortzeko ofiziozko eredu» (**IV. ERANSKINA**) beteko eta bidaliko da. Eraso ustez beste haur edo nerabe batek egin duenean, kasua ikertzea Fiskaltzari dagokio. Gogoratu behar da ustezko arau-hauslea 14 urtetik beherakoa bada, ez zaiola prozedura judizial penala aplikatzen eta Fiskaltzak adingabeak babesteari dagokionez Kode Zibilean ezarritako arauak aplikatuko dituela⁹.
- «Haur eta nerabeen arrisku-egoerak jakinarazteko fitxa» bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie (**V. ERANSKINA**).

⁸ Ebidentziak daudela ulertzen da, dokumentu honen ondorioetarako, adierazle erabat espezifikoak daudenean: adierazle fisikoak, haurrak edo nerabeak kontatu egiten duenean edo haurren sexu esplotazioko formaren baten frogak daudenean (Ararteko. *Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak*. 2021).

⁹ *Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak*, 2021. Ararteko

b) Susmoak baldin badaude¹⁰:

- Zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berriaz sortutako taldeak, informazioa jasoko du: inplikaturako ikasleak, non gertatu den, noiz gertatu den, lehenengo aldia den edo bestetan ere gertatu den, nola bizi duen biktimak, nola sentitzen den erasotzailearen aurrean, nola bizi duen familiak, zein den erasotzailearen egoera, zergatik egin duen, egoera zabaldu den edo ez, etab. Edonola ere, egin beharreko lehenengo gauza biktimarekin hitz egitea da. Jasotako informazioarekin jazarpen-protokoloaren **O ERANSKINA** beteko da, jazarpen-protokoloa martxan jarritz. Eranskina Ikuskaritzara eta Berritzeguneko zuzendaritzara bidaliko da.
- «Haur eta nerabeen arrisku-egoerak jakinarazteko fitxa» bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie (**V. ERANSKINA**).

2. **Kasuaren aurreazterketa eta urgentziako esku-hartzeak.**

Zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berriaz sortutako taldeak, jasotako informazioa aztertu ondoren, eraso jasandako biktimaren segurtasuna berehala bermatzeko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek hartzerakoan, kontuan hartu beharko dira ikaslearen adina eta bere testuingurua. Neurriak honako hauek izan daitezke:

- Erreferentziako pertsona heldu bat aukeratzea. Harekin komunikatuko da ikaslea. Ikaslearen gertuko pertsona izango da, ikasleak berak aukeratua. Komunikazio-bide seguruen bitartez, ikasleak eta erreferenteak behar den guztietan izango dute komunikazioa. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak...). Enpatiaren bidez, ikasleari bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaio, ez dugula bakarrik uzten.
- Biktimarekin harreman zuzena duten profesionalak (irakasleak, AZL, jangelako langileak, beste zerbitzuetako profesionalak,...) egoeraren berri eman, edozein gorabeheraren aurrean koordinatuta jardun dezaten.
- Beharrezkoak diren egokitzapenak egin: zaintza-neurri diskretuak ezarri, erasotzailearengandik aldentzeko neurriak hartu, ...
- Informazio gehiago behar izatekotan, behaketa-erregistroak jaso: data eta ordua, lekua, ordua, gertaera, berehalako larrialdi-neurria, behatzailearen sinadura...
- Hala ere, egoeraren larritasunaren arabera, neurri zorrotzagoak hartu ahal izango dira egoera bideratzeko.

¹⁰ Susmoak daudela ulertzen da, dokumentu hauen ondorioetarako, haur edo nerabearengan jokabide adierazleak daudenean, profesionalak edo familiak antzemandakoak, edo hirugarren pertsonen erreferentziaren testigantzak daudenean, baina ez badago adierazle fisikorik, haurrak edo nerabeak ez duenean ezer kontatu eta haurren sexu esplotazioaren formen frogarik ez dagoenean (Ararteko. *Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak*. 2021).

Aurreko guztia konfidentzialtasun-printzipioaren arabera landuko da.

3. **Familiei edo legezko tutoreei lehenengo jakinarazpena (haiek ez badira izan egoeraren berri eman digutenak).** (Banakako elkarrizketa egiteko deituko zaie, alde batetik, biktimari eta bere familiari, eta bestetik, ikasle erasotzaileari eta bere familiari. Eskola-jazarpen egoeretan jarduteko protokoloan prozedura beste bat bada ere, eraso sexualen kasuan hori da familiekin harremanetan jartzeko momentua. Honakoak izango dira elkarrizketen helburuak: gertatutakoaren berri ematea eta informazioa biltzea; familiek zer gertatu den ba ote dakiten jakitea eta gertatutakoaren inguruan hartu dituzten neurriak zein diren jakitea; hartu diren edo hartuko diren urgentziazko neurrien berri ematea eta horiei buruz duten iritzia eta/edo egin ditzaketen ekarpenak jasotzea; eta salaketa jartzearen edo jasotzearen aukera jakinaraztea, egindakoa delitu izan daitekeela adierazten duen arrastorik balego.
4. **Informazioa osatzea eta aztertzea.** Lehendik dagoen informazioa osatu egingo da egoki iritzitako galdera sorta, elkarrizketa edo bestelako prozeduren bidez. Horiek guztiak, ahalik eta diskrezio handienarekin egingo dira. Jazarpen-protokoloaren **I. ERANSKINA** beteko da (gehienez ere, 5 eskola-eguneko epean, egoeraren berri izan denetik).
 - a) *Jazarpenik ez dagoela ondorioztatzen baldin bada*, ikastetxeak JARDUERA PLANA egingo du. Beharrezkoa dela iritziz gero, Berritzeguneari eta Hezkuntzako ikuskariari aholkua eska diezaike. Planean idatziz jasoko dira zentroak hartu beharreko neurriak, hain zuzen, inplikaturako ikasleei, familiei, gainerako ikasleei eta irakasleei dagozkien neurriak, eta, kasuaren larritasunaren arabera, gizarte, osasun erakunde edo erakunde judizial batzuei igorritako komunikazioa ere bai. Jarduera Planean ezarritako neurrien berri emango zaie familiei, kontuan izanik hainbat kasutan haien kolaborazioa ezinbestekoa dela.
 - b) *Jazarpena egon daitekeela ondorioztatzen baldin bada*, ustez jazarpena jasaten duen ikaslea babesten jarraitzeko neurriak erabakitzea eta ebidentziak jasotzen jarraitzea. Jasotako informazioarekin, A TXOSTENA (**II. ERANSKINA**) beteko da, gehienez ere, 15 eskola-eguneko epean:
 - 1) *Jazarpenik ez dagoela ondorioztatzen baldin bada*. A TXOSTENAREN arabera, ez bada jazarpenik egon, BAT taldeak proposatuko du kasuari eman behar zaion hezkuntza-erantzuna, betiere bizikidetzara positiboa bultzatzera bideratuta. Horretarako, Berritzegunearen laguntza izango du. Hezkuntza-alderdietan plangintza, ordu-dedikazioa, edukiak eta abar aipatuko dira, besteak beste: tutoretza kolektiboa, banakako tutoretza, gatazkak




indarkeriarik gabeko metodoen bidez konpontzea, gelako arauak lantzea, etab. Erreferentziako ikuskariarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta haren aplikazioak kasu guztietan duten asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziako ikuskariaren aholkularitza izango du.

II) *Jazarpena dagoela ondorioztatzen baldin bada*, **III ERANSKINA** (B Txostena) beteko da, hogeita bi eskola-eguneko epearen barruan. Ikastetxeak jazarpen-portaerak izan dituzten ikasleekin abian jarriko dituen neurrien helburua beti izango da portaera horiek berriz gerta ez daitezen eta eragindako kalteak konpontzeko laguntza ematea. Horrek ikaskuntza berriak ekarriko ditu, ikaskideekin harremanak izateko modu berriak abian jartzeko beharrezkoak direnak. Ezin dugu ahaztu ikastetxeko ikasleak direla, bai jazarpena jasan dutenak, bai jazarpen-portaerak izan dituztenak. Atal honetan, eskola-jazarpen kasuetan aplikatzen den **I. ERANSKIN**-eko 4. puntuan (*hartutako erabakiak*) adierazitakoak jaso daitezke, eta beste batzuk gehitu, beharrezkotzat jotzen bada. Erreferentziako ikuskariarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta bere aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziako ikuskariaren aholkularitza izango du.


5. **Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea.** Ikastetxeko zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berariaz sortutako taldeak hartuko du Jarduera Planean aurreikusitako neurriak gauzatzearen ardura. Aldizka ikastetxearen erreferentziazko ikuskariari neurriak zenbateraino betetzen ari diren jakinaraziko dio eta inplikaturako ikasleen gizarte heziketako egoeraren nondik norakoak ere jakinaraziko dizkio.

Edozein modutan, horrelako kasuetan, berriz ere gogoan eduki behar da haurren sexu esplotazio eta abusuen formaren bat aplikatzen duen adingabea, edozeren gainetik, haur edo nerabe bat dela, eta babesteko neurriak, esku-hartze terapeutikoa eta jarraipena jasotzeko eskubidea duela.



B. HEZKUNTZA KOMUNITATEKO NORBAITEK JAKITEA EDO SUSMOA IZATEA IKASLE BATEK INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUELA, IKASTETXEKO LANGILEREN BATEN ESKUTIK


- Ikastetxeko-zuzendaritza taldeari gertatutakoaren berri ematea.** Zuzendaritza taldeak, berehala, Hezkuntzako ikuskariari jakinaraziko dio eta horrek diziplina-espeditentia ireki behar den erabakiko du. Berritzeguneari aholkua eska diezaioke. Aldi berean:
 - Ebidentziak baldin badaude: epaitegira igortzeko ofiziozko eredu bat beteko eta bidaliko da (**IV. ERANSKINA**).
 - Susmoak baldin badaude: gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa beteko eta bidaliko da (**V. ERANSKINA**).
- Urgentziazko esku-hartzea.** Akusatua ikastetxeko profesional bat den kasu zehatzetan, bereziki nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela (gizarte zerbitzuen ikerketa prozesuak irauten duen bitartean, susmo kasuetan, edo prozesu judizialak irauten duen bitartean, ebidentzia eta salaketa kasuetan) haur edo nerabea zein gainerako ikasleak berehala babestea bermatuko duten zaintza eta antolaketa neurriak ezartzea: pertsona profesional hori ez egotea inoiz bakarrik ikasgelan, berarekin batera guardiako beste irakasle bat egotea, jolastokiko zaintzetan eta jantokiko orduetan zaintza areagotzea, etab.
- Adingabearen familiari edo legezko tutoreei jakinaraztea.** Egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango dio adingabearen familiari edo legezko tutoreei. Ikastetxeak kasu horren inguruan esanguratsua izan daitekeen informazioa batuko du, eta, betiere, prozesuan diskrezio osoz jardungo du.
- Erreferentziazko pertsona heldu bat eskaintzea ikasleari eta familiari edo legezko tutoreei.** Harekin komunikatuko dira ikaslea eta familia edo legezko tutoreak. Ikaslearen gertuko pertsona izango da, ikasleak berak aukeratua. Komunikazio-bide seguruen bitartez, ikasleak eta erreferenteak behar den guztietan izango dute komunikazioa. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak...). Enpatiaren bidez, ikasleari eta familiari edo legezko tutoreei bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaie, ez ditugula bakarrik uzten. Erreferentziazko pertsona horrek, zuzendaritzak bezala, diskrezio osoz jokatu du prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.



5. **Prozedura judiziala abiarazten den kasuak.** Lurralde mailako ordezkariak, kautelazko neurri modura, pertsona susmagarriari behin-behineko eginkizun gabetzea aplikatzea erabaki ahalko du; kasu horretan, abiarazitako diziplina prozedura eten egingo litzateke harik eta abiatutako prozesu judiziala bukatu arte. Epaitegiak eta Fiskaltzak lurralde mailako ordezkariari jakinaraziko dizkiote artxibatzea edo zigortzea ekarriko duten ebazpenak, administrazio espediente zigortzailea artxibatu edo horrekin jarraitzeko ondorioetarako. Eginbideak irekitzen ez badira edo kasua artxibatzen eta largesten bada, berdin-berdin hartuko dira ikastetxean segurtasun-neurriak, besteak beste: eraginpean dauden pertsonen egoeraren prebentziozko segimendua eta segimendu horren ondorioen aldizkako erregistroa, harik eta beharrezkotzat jotzen ez diren arte.

C. HEZKUNTZA KOMUNITATEKO NORBAITEK JAKITEA EDO SUSMOA IZATEA IKASLE BATEK, SENIDEREN BATEN EDO IKASTETXEKO LANGILEA EZ DEN BESTE PERTSONA BATEN ESKUTIK, INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUELA

1. **Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari gertatutakoaren berri ematea.** Zuzendaritza taldeak, bere-hala, Ikuskariari jakinaraziko dio eta Berritzeguneari aholkua eska diezaioke. Aldi berean:
- Ebidentziak baldin badaude: epaitegira igortzeko ofiziozko eredia beteko eta bidaliko da (**IV. ERANSKINA**).
 - Susmoak baldin badaude: gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa beteko eta bidaliko da (**V. ERANSKINA**).
2. **Adingabearen familiari edo legezko tutoreei jakinaraztea.** Egoeraren arabera, desberdin jokatuko da:
- Ustez tratu txarrak eman dituen pertsona ustez biktima den ikaslearen senidea edo familia-ingurukoa baldin bada:
 - ▷ Aita baldin bada: egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango dio adingabearen amari edo legezko tutoreei
 - ▷ Aita ez den beste norbait baldin bada: egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango dio adingabearen familiari edo legezko tutoreei.
 - Ustez tratu txarrak eman dituen pertsona ustez biktima den ikaslearen ingurukoa ez baldin bada: egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango dio adingabearen familiari edo legezko tutoreei.



3. **Erreferentziazko pertsona heldu bat eskaintzea ikasleari eta familiari edo legezko tutoreei.** Harekin komunikatuko dira ikaslea eta familia edo legezko tutoreak. Ikaslearen gertuko pertsona izango da, ikasleak berak aukeratua. Komunikazio-bide seguruen bitartez, ikasleak eta erreferenteak behar den guztietan izango dute komunikazioa. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak...). Enpatiaren bidez, ikasleari eta familiari edo legezko tutoreei bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaie, ez ditugula bakarrik uzten. Erreferentziazko pertsona horrek, zuzendaritzak bezala, diskrezio osoz jokatu du prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.

D. HEZKUNTZA KOMUNITATEKO NORBAITEK JAKITEA EDO SUSMOA IZATEA IKASLE BATEN AMA EDO IKASTETXEKO LANGILE EMAKUMEREN BAT ETXEAN GERTATZEN DEN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DELA

1. **Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari gertatutakoaren berri ematea.** Zuzendaritza taldeak, bere-hala, Ikuskariari jakinaraziko dio eta Berritzeguneari aholkua eska diezaioke. Aldi berean:
 - a) Ebidentziak baldin badaude: epaitegira igortzeko ofiziozko eredu bat beteko eta bidaliko da (**IV. ERANSKINA**).
 - b) Susmoak baldin badaude: gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa beteko eta bidaliko da (**V. ERANSKINA**).
2. **Biktimari ikastetxearen babesa edota laguntza eskaintzea.** Amari harremanetarako erreferentziazko pertsona eskainiko zaio. Amaren gertuko pertsona izango da. Komunikazio-bide seguruen bitartez, amak eta erreferenteak behar den guztietan izango dute komunikazioa. Enpatiaren bidez, amari bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaio, ez dugula bakarrik uzten. Erreferentziazko pertsona horrek, zuzendaritzak bezala, diskrezio osoz jokatu du prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie behar-beharrezkoak direnei bakarrik.
3. **Amaren seme-alabei arreta ematea.**¹¹ Eskolan dauden seme-alabei arreta berezia jarriko zaie.
 - Zuzendaritza taldeak tutoreei egoeraren berri emango die. Horiek, zuzendaritzak bezala, diskrezio osoz jokatu dute prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.

¹¹ Legearen arabera, ama indarkeria matxistaren biktima denean bere seme-alabak ere badira biktima zuzenak (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa. 29.2 artikulua).


- Tutoreak ikasleen egoeraren jarraipen estua egingo du, haien beharrei (emozionalak, akademikoak...) erantzun egokia emateko.
- Behar izanez gero, tutoreak beste agenteekin kontaktua mantenduko du: laguntza zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, etab.

4. **AMARI TRATU TXARRAK EMATEN DIZKIONA IKASTETXEKO IKASLEA BALDIN BADA:**

- **Ikastetxeke zuzendaritza-taldeari gertatutakoaren berri emango zaio.** Zuzendaritza taldeak, berehala, Hezkuntzako Ikuskariari jakinaraziko dio. Aldi berean:
 - a) Ebidentziak baldin badaude. Epaitegira igortzeko ofiziozko eredu bat beteko eta bidaliko da (**IV. ERANSKINA**). Eraso ustez haur edo nerabe batek egin duenean, kasua ikertzea Fiskaltzari dagokio. Gogoratu behar da usteko arau-hauslea 14 urtetik beherakoa bada, ez zaiola prozedura judizial penala aplikatzen eta Fiskaltzak adingabeak babesteari dagokionez Kode Zibilean ezarritako arauak aplikatuko dituela.
 - b) Susmoak baldin badaude. Gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa beteko eta bidaliko da (**V. ERANSKINA**).
- **Zuzendaritza taldeak tutoreari egoeraren berri emango dio**, ez baldin badaki. Horrek, zuzendaritzak bezala, diskrezio osoz jokatuko du prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.
- **Banakako plan bat egitea.** Zuzendaritzaren eta tutorearen artean erabakiko dute zein izango den ikaslearen jarraipena egingo duen pertsona eta, denen artean, banakako plan bat osatuko da.
- **Planaren jarraipena.** Ikaslearen beharrei (emozionalak, akademikoak...) erantzun ahal izateko, banakako plan horren jarraipenerako epeak eta tresnak ezarriko dira.
- Ikasleekin egingo den esku-hartzea familiarri azalduko zaio eta familiaren kolaborazioa bilatuko da.

OHARRA

Aurreko A, B, C eta D ataletan ezarritakoarekin bat etorriz, tratu txarrak edo sexu indarkeria gertatzen direla jakindakoan, biktimei edo, hala dagokionean, horien familiei biktima diren aldetik hezkuntza arloan jasotzeko eskubidea duten zerbitzu eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie: bekak eta matrikula aldaketa.





0. ERANSKINA

ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

Eskariaren jatorria (X batekin adierazi):

Familia

Bestelakoak

Adierazi eskariaren jatorria
(*Monitorea, irakaslea, pediatra, etab.*)

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea

Ikastetxearen kodea

Herria

2.- USTEZKO BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izen-abizenen inizialak

Identifikazio-kodea

Sexua

Adina

Maila/Taldea

3.- AZALDUTAKO GERTAKARIAK

(Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturata dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira).



4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN NEURRIAK

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

Eskaria egiten duena

Sin.:

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).



I. ERANSKINA IKASTETXEKO BILERAREN AKTA

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren inizialak	

2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua*	Sinadura

* Adierazi zeintzuk diren BAT taldekoak

3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla).

--

4.- HARTUTAKO ERABAKIAK

(Berariaz adieraziko dira protokoloari buruz hartutako erabakiak, ustezko biktima babesteko neurriei buruzkoak, salatu-tutako gertakarien ustezko eragileari zuzendutako kautela-neurriei buruzkoak, halakorik bada, eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdiri buruz hartutakoak ere bai).

--

Horrez gain:

4.1.- Erreferentziako ikuskariarekin kontsulta egin eta gero, honako hau erabaki da:

Protokoloarekin jarraitu **A txostena** egin arte*

Protokoloarekin ez jarraitu, jazarpenik ez baitago

* Jazarpen-zantzuak badaude edo horiei buruzko zalantzak badaude, kasua argitzeko behaketa- eta ikerketa-prozesuekin jarraituko da, hau da, ikertzen jarraituko da A txostena egin arte.

4.2.- Jazarpenik **EZ dagoela** ebatzi bada, erabaki hori hartzea ekarri duten datuak eta ebidentziak adieraziko dira.



A) LORTUTAKO INFORMAZIOA

Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen prozedurak (elkarrizketak, behaketa- erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.).

Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, eskaria oinarri hartuta (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira).

B) INFORMAZIOA AZTERTZEA

Ondorio garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta.

C) JAZARPENAREN EZAUGARRIAK AZTERTU

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

- Ba al dago mina eragiteko intenzionalitaterik?

- Ba al dago pertsonalizaziorik?

- Ba al dago errepikapenik?

- Orokorrean aztertuta, jazarpenaren lau ezaugarrietako bakoitza aztertu denean ateratzen den ondorio bera ateratzen al da?

BA AL DAGO JAZARPENIK?	X batekin adierazi
EZ	
BAI	

..... (e)n, 20... (e)ko ren (e)an

Zuizendaria

Sin.:



II.ERANSKINA – «A TXOSTENA»

1. IDENTIFIKAZIO DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. BILDUTAKO HASIERAKO INFORMAZIOA

Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

- **Esku-hartzeko eskariaren jatorria:**
(Tutorea, beste irakasle bat, ikasleak, familia, Berritzegunea, Hezkuntzako Ikuskaritza, beste batzuk)

- **Esku-hartzeko eskariaren data:**

- **Salatutako gertakarien laburpena:**

--

- **Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak**

a) Ustezko biktima:

Ikaslea

<i>Inizialak (izen-abizenak)</i>	
<i>Ikaslearen identifikazio-kodea</i>	
<i>Sexua</i>	
<i>Adina</i>	
<i>Maila eta taldea</i>	

b) Salatutako jokabidearen ustezko eragileak

Ikasleak

<i>Inizialak (izen-abizenak)</i>			
<i>Ikaslearen identifikazio-kodea</i>			
<i>Sexua</i>			
<i>Adina</i>			
<i>Maila eta taldea</i>			

- **Ustezko jazarpena gertatu den lekua**

--



- Lekukoak, baleude

--

INFORMAZIO OSAGARRIA

X batekin adierazi

Badago mediku-txostena	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan	
Ikastetxeak ba al dauka salaketaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

3. IKASTETXEAK LORTUTAKO INFORMAZIOA

Ustez inplikaturata dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.

- Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen **prozedurak** (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, soziogramak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.)

--

- Ikastetxeak bildutako **datuak eta ebidentziak**, esku-hartzeko eskaria oinarri (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira)

--

4. INFORMAZIOA AZTERTZEA

- **Ondorio** garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta

--

5. JAZARPENA DAGOEN ALA EZ BALIOESTEA

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

--

- Ba al dago mina eragiteko intenzionalitaterik?

--



- Ba al dago pertsonalizatorik?

- Ba al dago errepikapenik?

- Orokorrean aztertuta, esan al daiteke badagoela ustezko biktimari nahita mina eragiteko jokabidea, jokabide hori errepikatu egiten dela eta biktimia ez dela gauza bere burua defendatzeko?

BADAGO JAZARPENA	X batekin adierazi
BAI	
EZ	

Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezi-tasunak

Adibidez: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko erasoa (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira.

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa – Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
2. Hitzezko erasoa – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) – Goitzenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak izkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Erasoa fisiko zuzenak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpn sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu- gehiegikeria gauzatzea. – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7. Ziberjazarpn – Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexting) eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
8. LGTBIQ + fobiako ekintzak – Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. – Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. – Erasoa fisiko zuzenak/zeharkakoa. – Larderia/xantaia/mehatxuak LGTB pertsona izateagatik.				



<p>9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta</p> <p>– Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea.</p> <p>– Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak.</p> <p>– Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak.</p> <p>– Larderia/xantaia/mehatxuak</p>				
<p>10. Eraso arrazistak</p> <p>– Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea.</p> <p>– Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak.</p> <p>– Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak.</p> <p>– Larderia/xantaia/mehatxuak</p>				

6. HEZKUNTZA-TRATAMENDUA

- **Jazarpenik EZ dagoenerako** hezkuntza-tratamendua

(Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

- **Jazarpena baldin BADAGO:** deskribatu biktimaren babesa bermatzeko ezarritako neurriak eta inplikaturik dauden ikasleekin hartutako neurriak

(Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

7. FAMILIEI JAKINARAZI

(datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.)

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



III.ERANSKINA – «B TXOSTENA»

1. IDENTIFIKAZIO DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimaren inizialak	

2. «A TXOSTENA» HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN ESKURATU DEN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA DATU ESANGURATSUAK

Inplikaturako ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.

- Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan ohartemandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa

--

3. JARDUKETA PLANA

- Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

--

- Hezkuntza jarduerak

- Biktimarekin:

--

- Jokabide jazarlea duten ikasleekin:

--



- *Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin:*

- **Beste jarduketa batzuk**

- *Familiekin:*

- *Irakasleekin:*

- **Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak**

4. BILERAK FAMILIEKIN EDO LEGEZKO TUTOREEKIN

- **Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak**



5. JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- **Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak**

- **Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa**

- **Hezkuntzako Ikuskaritzari informazioa emateko prozedura eta maiztasuna**

..... (e)n, 20.... (e)ko ren (e)an

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



IV. ERANSKINA EPAITEGIRA IGORTZEKO ERANSKINA¹²

Txostenetan bildutako datu sentikorrek neurri handiagoan zainduko dituen aurkezpen telematikoko beste sistemaren bat eduki arte, badirudi komenigarria dela ofizio honetan datu gehiegirik ez ematea; hala ere, jakinarazten den edukiaren garrantzia nabarmentzea komeni da. Informazio garrantzitsua esparru desberdinetan prestatutako txostenak izango lirateke (testu nagusian dagoeneko aipatutakoak); ofizio honekin batera GUTUN AZAL ITXIAN aurkeztuko lirateke.

..... jaunak/andreak,
 -(e)(a)n (lantokia eta zentroa)
 (jardun profesionala) lana garatzen duenak, EUSKADIN HAUR ETA NERABEEN SEXU ABUSU ETA ESPLOTAZIOKO KASUETAN JARDUTEKO JARRAIBIDEEI (erakunde honen jardunbidea bideratzen dutenak) jarraikiz, honi atxikita igortzen dut, isilpean eta biktima eta bere datu pertsonalak babesteko, txosten/parte hau, ustez-(e)(a)n (data) -(e)n (udalerrian) eta (familia, eskola, etab.) testuinguruan gertatutakoa salatzeke.

Kautelazko premiazko neurriak aplikatzea komeni da?

BAI

EZ

Data eta sinadura

¹²Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak. Ararteko.



V. ERANSKINA

HAURTZARO ETA NERABEZAROKO ARRISKU-EGOERAK JAKINARAZTEKO FITXA¹³

data:

Jakinarazpena egiten duen edo egoera bideratzen duen pertsonaren datuak

izen-deiturak		zerbitzua
kargua edo lanpostua		telefonoa
helbidea	Faxa	helbide elektronikoa

Adingabeen datuak

izen-deiturak	jaioteguna	generoa	nazionalitatea

Adingabeen helbidea

zein da haien ohiko helbidea?
non daude orain?

Senide edo tutoreek

izen-deiturak	senidetasuna	helbidea	telefonoa

Beste senide batzuk

izen-deiturak	senidetasuna	helbidea	telefonoa

¹³ Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako.



Jakinarazpenaren arrazoa (deskribapen laburra). Noiztik dugu egoera honen berri eta zer maiztasunekin gertatzen da?

- Kalte- edo ondoez-adierazleak hurrengan (fisikoak, jarrerari dagozkionak, garapen kognitiboari dagozkionak, berdinekiko eta helduekiko harremanetan ikusitakoak...).
- Familiari eragiten dioten beste arazo esanguratsu batzuk.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hurrekiko duten jarrera.

- Adingabearen senide edo tutoreek eta jakinarazpena egiten duen ikastetxearen/profesionalaren arteko harreman mota.
- Jakinarazpena egin duen ikastetxeak/profesionalak arazo honen harira egindako jarduketak (gurasoekin, haurrarekin, beste erakunde batzuekin...) eta lortutako emaitzak.

Arduradunek badute jakinarazpen honen berri? Nola erreazionatu dute informazio hori jasotzean? Gizarte zerbitzuek emandako laguntza jasotzeko prest daude? Arazo/zailtasunaren kontzientzia maila.

Garrantzitsutzat jotzen den bestelako informazioa.

Sinadura

Sinadura



VI. ERANSKINA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MOTAK¹⁴:

- **Indarkeria fisikoa.** Emakumearen biziaren edo osotasun fisikoaren aurka egiten duen indarkeria da, edo xede hori duena. Ez-istripuzko ekintza da, min fisikoa eragiten duena edo eragin dezakeena. Horietako batzuk dira bultzakadak eta kolpeak ematea, gauzak jaurtitzea eta antzekoak, baldin eta emakume bati heriotza, lesio larriak, tratamendu medikoa edo kirurgikoa behar duten lesioak edo ospitaleraterik gabeko lesioak eragiteko modukoak baldin badira. Erasoen ondoriozko gaixotasunak eta lesioak zaintzeko laguntzarik ez ematea ere tratatu txartzat hartzen da.
- **Indarkeria psikologikoa.** Min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria da, bai eta emakumearen duintasuna ukatzea, hari segurtasun eza eragitea, emakumeak bere buruari errespetua ez izatea, mendekotasun emozionala sortzea, autoestimua galaraztea, gizartetik bakartzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak eginez, baldintzarik gabeko mendekotasuna edo etengabeko zaintza ezarraraziz. Hitzezko jokabide hertsagarriak dira (esaterako, irainak) edo hitzik gabeko jokabide hertsagarriak, bikotekidea ukitzera iristen ez badira ere (esaterako, atea kolpatzea edo objektuak suntsitzea). Tratu txar psikologikoak nahitako jokabideak dira, min psikologikoa, norbere buruarenganako konfiantzaren galera edo sufrimendua ekartzen dutenak: irainak, laidoak, oihiak, isiluneak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideien kritikak... Jokabide horiek jendearen aurrean nahiz eremu pribatuan egin daitezke, eta oso zaila da horiek hautematea baldin eta erasotzaileak portaera hori arlo pribatuan baino ez badu..
- **Sexu-indarkeria.** Emakumeen gorputza beren borondatearen aurka erabiltzea dakarren indarkeria da. Eraso fisikoa eta laido psikologikoa ere bada, pertsonaren sexu-askatasunaren aurkakoa. Sexu-indarkeriazko jokabideak dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbidean jartzea eta adingabeen pornografia. Sexu-indarkeriazko jokabidetzat hartzen dira, baita ere, behartutako prostituzioa, pertsonak sexu-xedeetarako salerostea, genitalen mutilazioa, eta birjintasuna, haurdun ez izatea eta/edo fideltasuna 'egiaztatzeko' egiten diren azterketa behartuak. Sarritan, indarkeria mota hori ez da indarkeria moduan ikusten bikotekideen artean, emakume askok ez baitu uste sexualitate behartua bortxaketa denik. Horregatik, nahiz eta indarkeria mota hori emakumeen aurka munduan gehien erabiltzen denetarikoa izan, gutxien salatzen denetarikoa da. Gizonezkoek eragindako sexu-indarkeria patriarkatuak emandako abantaila-baldintzetan bermatzen da, eta, emakumeen gorputza erabiliz, emakumeak mendean hartzea du helburu. Sexu-indarkeria horren baitan honako mota hauek daude:
 - » Sexu-erasoa. Onespenik gabeko sexu-harremana da, indarkeria erabiliz edo emakumea beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak. Emakumeak bortxatzen direnean, biktimizazio bikoitza gertatzen da askotan, emakumea jasadako erasoaren erantzule egiten baitute.
 - » Sexu-abusua. Sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe. Zigor-kodeak bereizi egiten ditu onespenik gabeko gehiegikeriak eta engainuz edo nagusitasun-egoera bat baliatuz egindako gehiegikeriak.
 - » Sexu-jazarpena. Lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo

¹⁴ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak EAE, 2019. Emakunde.



umiliagarrian aurkitzen da. Horren eraginez, aldatu egin daiteke biktimak lan-esparruan duen jokabidea: jazarlearekin bakarrik ez suertatzeko ahaleginak egin ditzake, janzkera jakin bat eraman, etab. Horrezaz gain, lan-esparruan gerta daiteke biktima lanetik kaleratzea, mailaz ez igotzea edo mehatxatua izatea ekintza horien bidez.

- **Ekonomikoa.** Emakume baten eta, halakorik bada, emakumearen seme-alaben edo ekonomiko ki bere mende daudenen ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen dute indarkeria ekonomikoa. Horren barnean sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoak, familiakoak edo bikotekideenak edukitzeko aukerak mugatzea. Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Lan ordaindua duten emakumei zein lan ordaindurik gabeko emakumei ezartzen zaie kontrol hori.
- **Indarkeria soziala.** Emakumea bakartzea eragiten du indarkeria sozialak; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazten du emakumea, jendaurrean mespretxatzen edo baztertzen du eta abar. Jokabide horiek guztiek min psikologikoa eragiten dute.
- **Indarkeria sinbolikoa.** Indarkeria sinbolikoa edo zeharkakoa gertatzen da sinesmen eta rol sozial jakin batzuk barneratzen direnean: gizonetzkoen gailentasuna erreproduzitzen duten edo aurreko atalean azaldu diren indarkeria motak justifikatzen edo hutsaltzen dituzten sinesmen eta rolak izaten dira, biktimak berak ere barnera ditzakeenak. Mezuak, balioak, irudiak eta zeinuak dira, pertsonen arteko harreman sozialetan mendekotasuna, desoreka eta diskriminazioa erreproduzitzen eta transmititzen dutenak eta emakumeek gizartean duten mendetasun-egoera naturalizatzen dutenak.
- **Ziber-indarkeria.** Teknologiez baliatuta egiten den emakumeenganako delituzko ekintza oro. Zentzu horretan, halako delituek egoera ugari hartzen dituzte barnean, eta horien artean nabarmentzekoak dira irudiak edo bideoak argitaratzea eta/edo hedatzea, ondokoen bitartez: sexting-a, sextortsioa, grooming-a, zibererasoa, haur-pornografia, onlineko sexu-esplotazioa, eta emakumeak sexu-salerosketarako sareen menpe jartzea. Horietako batzuk dira:
 - » Sexting-a. Eduki sexualak argazki- edo bideo-formatuan bidaltzen dira, orokorrean bidaltzailak berak ekoiztuta, eta telefono mugikorren bitartez bidaltzen zaizkie pertsona bati edo gehiagori. Ekintza horiek harreman afektibo edo sexualen bat duten edo izan duten pertsonen artean gertatu ohi dira, lagunartearekin zuzenean edo zeharka lotutako arrazoiengatik. Sexting bidez bidalitako eduki horiek baimenik gabe argitaratu eta/edo hedatzea delitu bat da, Kode Penal berriaren 197. artikuluan jasotakoa, zehazki izen horrekin ez bada ere.
 - » Sextortsioa. Xantaia bidez egiten den sexu-esplotazio modu bat da. Norbaitek sexting bidez edo web-kamera bidez lortutako eduki sexualak erabiltzen ditu biktimarengandik zerbait lortzeko (orokorrean sexualitatearekin zerikusia duena), eduki hori argitaratzearekin mehatxu eginez.
 - » Porno-mehatxua edo revenge porn. Interneten eduki sexuala argitaratzea biktimaren (gehienetan emakumeak) informazio pertsonalarekin batera. Bikote baten harremana hautsi ondoren gertatu ohi da mehatxu gisa, eta gehienetan gizonaren aldetik, emakumeak berarekin jarraitzen ez duelako. Hala ere, pertsona ezezagun baten aldetik ere gerta daiteke, zeinari ilegalki iritsi zaion eduki sexuala.
 - » Grooming-a edo child-grooming-a. Heldu batek (gehienetan gizonak) nahita burututako ekintza bat da, Internet bidez adingabeekin adiskidetasun-loturak ezarri nahian. Limurtzeko estrategia bat da, harreman horien bila dabilenaren identitatea ezkutatu nahian, eta horretarako gazte bat edo neska bat balitz bezala jokatzeko du. Bere xedea da sexu-gogobetetasuna lortzea adingabeen irudi edo bideo erotiko/pornografikoen bitartez, baita sexu-topaketa baten aurretiazko prestaketa gisa ere



VII. ERANSKINA

IKASTETXEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Oro har, azalduko diren jarduketa-faseetan, eskolak honako hauek hartuko ditu aintzat ¹⁵:

IKASTETXEAK EGIN BEHAR DUENA:

- Susmoaren zantzuei adi egon.
- Tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituela kontatzen duen ikasleari begirunez entzun.
- Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu: esaten duena hitzez hitz jaso eta kontakizunaren inguruabarrak zehaztu.
- Adingabearen intimitatea errespetatu.
- Hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinarazi.
- Kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen datuak eta informazioak erregistratu, ahalik eta modurik objektiboenean eta balio-judiziorik eman gabe.
- Informazioa ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienarekin tratatu.
- Familiari jakinarazi, horrek adingabearen integritatea arriskuan jartzen duenean izan ezik (familia barruko sexu-abusua, tratu txar fisiko larriak...). Kasu horietan, gizarte zerbitzuei eman beharko zaie egoeraren berri.

IKASTETXEAK EGIN BEHAR EZ DUENA:

- Ez du entzungor egin eta balio-judiziorik eman behar; ez dio haur edo nerabeari zalantzarik planteatu behar tratu txarren, sexu-jazarpenaren edo sexu-abusuen egiazkotasunari buruz edo gertatu direlako susmoari buruz.
- Ez du inola ere hauraren edo nerabearen gorputza arakatu behar.
- Ez du galdeketa egin behar, langile eskudunek egiten baitute hori berriz ere biktimizazioan erortzea errazten ez duten babes-baldintza egokietan. Eskolak ez du tratu txarren eta sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren diagnostikorik egiten, ezta baieztatu ere; aitzitik, eskolak susmoa jakinarazten du.

¹⁵ Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako



VIII. ERANSKINA. INDARKERIA MATXISTA ERAGITEN DUEN AGENTEAREN ARABERA JARDUTEKO ETA DETEKTATZEKO JARRAIBIDEAK

